

Pausokak errehabilitazio gune berria zabalduko du Urnietan

Abenduaren 1etik aurrera, terapia ezerdinak eskaintzen hasiko dira Idiazabal kaleko 13. zenbakiko etxabeen.

Markel semearen behar berezi erantzuteko terapiak aldarrikatzen hasi zen **Maria Lesaca** urnietarra, duela zenbait urte. Urteotan frogatu ahal izan du, zailtasunez beteriko biderei aurre eginez, terapia on eta egonkorrei esker haur horiek garen handia izan dezaketela. Bizi kalitatea nabarmen hobetzeraino. Etxe barruko esperientzia horretatik abiatuta, **Pausoka** elkarte sortu eta Hernanin terapiak eskaintzen hasi ziren. 12 familiekin abiatu zen ekimena 110 familirengana zabaldu



Larunbat honetan egoitza berriaren inaugurazio ekitaldia egingo dute, eta abenduaren 1etik aurrera martxan izango da. Aurkezpen ekitaldira Andoaingo eta Urnietako Udal ordezkariak hurbildu ziren, Pausokako bolondresekin batera.

da. Biderkatze horretan, beraz, Hernanin egoitza txiki geratu da, eta abenduaren 1etik aurrera zerbitzu berdinak eskainiko

dituen bigarren egoitza irekiko dute Urnietan. Astearte goizean aurkezpen ekitaldia egin zuten. Bertan izan ziren Andoaingo

eta Urnietako Udal ordezkariak, eta baita Pausoka taldeko bolondresak ere. [URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Ostalaritzan trebatzeko ikastaroa

Andoainen eta Urnietan erroldatuta egon eta iraupen luzeko langabezia egoeran dauden edota lehen kontratua egin gabe duten gazteentzat ostalaritza ikastaroa antolatu dute, eskualdeko garen agentziaren eskutik.

[ESKUALDEA, 2. ORRIALDEA]

Giza-kate jendetsua Andoainen

“Bizitzaren herena” ekimenaren eskutik, Asier Oiartzabal Andoaingo preso politikoa- ren aldeko giza-kate jendetsua egin zuten aurreko larunbatean.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

GuraSOS taldearen deialdia



Erraustegiarekin kezkatuta, eskualdeko eta Gipuzkoa osoko hainbat gurasok GuraSOS taldea sortu zuten. Larunbat honetarako manifestazioa deitu dute.

[ESKUALDEA, 2. ORRIALDEA]

Lidertzan direla jokatuko dute etxean

Urnietako senior mailako taldeak etxean hartuko du bigarren sailkatua, larunbatean 15:30ean.

Denboraldia bikain doa urnietarrentzat. Garaipenak pilotzaren ondorioz sailkapenaren gaialdean daude, eta asteburu honetan lidergotza sendotzeko aukera dute.

[KIROL ALBISTEAK, 7. ORRIALDEA]





HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi SMART WATCH bat!

*Parte hartzeko epea 2017ko abenduaren 3an, gauko 12etan itxiko da

Euskara aflean erabili lanean



www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html



DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.

“Eman bidea osasuna eta adostasunari” manifestazioa



Erraustegiaren eragin-eremu horretan 69.000 haur eta gaztek ikasten dute, mapa honek islatzen duen moduan.

Postontzia GusaSOS taldea

“Kaixo lagun, interes politiko eta ekonomikoak albo batera utzita, Donostian (Zubietan) egitekoak diren erraustegiak gure seme-alaben osasunean izan dezakeen eraginaz kezkatutako taldea da GuraSOS.

Eusko Jaurlaritzak 30 km-ko diametroan ‘eragin-eremua’ onartzen du; hala dio erraustegiak ingurunean duen eraginari buruzko adierazpenean jasotzen den kutsaduraren sakabanatze-atmosferikoren azterketak.

GURASOS maiatzean sortu denetik dibulgazio eta eztabaida foroa (Orona_Ideo maiatzaren 21), Haurren babesarako familia eta gizarte hesia (Donostia, ekainaren 19an. 5.000 pertsonak parte hartu zuten bertan), hainbat ekimen juridiko (uztailatik) eta Abuztock jaialdi baketsua (Donostia, irailaren 4a) antolatu ditugu.

Azaroaren 26an, berriz, GURASOSek manifestazioa deituko du Donostian arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Helburua erraustegiaren lizentzia gelditzeko eta parte-

hartzeko prozesu bat irekitzeko eskatu eta gai honen inguruan adostasuna lortzeko oraindik garaiz gaudela aldarrikatzea dira. Gure asmoa manifestazio honetan ahalik eta jende gehienak parte-hartu dezan da, eta horretarako Gipuzkoako herritar guztiak deitu nahi ditugu bertara. Gutun honen bidez zure elkartearen laguntza eskatu nahi dugu, GURASOS eta azaroaren 26ko manifestazioaren berri zure herrian eman dezazuen. Prest egongo bazinate, zuekin harremanetan jarriko ginatete eta oinarrizko materiala helaraziko genizuke herrian lanketa egiteko.

Hortxe proposamena. Inola-ko galdera edo zalantzarik izango bazenu, edota GuraSOS eta gure ekimenari buruzko informazio gehiago nahi izango bazenu gurasos.org aurkituko duzu, edota bestela jarri zaitez gurekin harremanetan komunikazioa@gurasos.org helbidera idatziz.

Gure ekimenarekin bat egingo duzuelakoan agurtzen gara. Mila esker eta ondo izan!”.

Urnieta Bizirik ekitaldia



Erraustegiaren aurka eta osasunaren aldeko jardueran antolatatu zuen Urnieta Bizirik plataformak, aurreko ostiralean. Antolatzaileak pozik

agertu dira herritarren parte hartzearekin. Magoak, esatearako, ikusmina sortu zuen txikien eta ez hain txikien artean.

“Etorkizuna eraikiz” egitasmoaren aurkezpena

Ahaldun Nagusiaren bilera eskualdeko eragileekin



Ekonomiari buruzko hitzorduan Urnietako eta Andoaingo Udaleko ordezkari eta teknikariak izan ziren, besteak beste, Mikel Pagola Urnietako alkatea eta Jon Zulueta Andoaingo Udaleko sustapen ekonomiko, enplegu eta gazteria alorreko zinegotzia.

Esperientzia pilotuak martxan jarri, ebaluatu eta ondorioak politika publikoetan txertatu. Horixe da “**Etorkizuna eraikiz**” egitasmoan jaso duten estrategia, Gipuzkoako Aldundiak aurrera eraman nahi duena. Aurrereko ostiralean **Markel Olano** Ahaldun Nagusia Hernanin izan zen, eskualdeko garapen agentziak gonbidatuta, tokiko eragileei egitasmoaren berri emateko. Egitasmoa bi zutabe nagusiren gainean eraiki da: alde batetik, **GipuzkoaLab** deritzona, ekonomia, gizarte eta kultura arloetan esperientzia pilotuak martxan jarriko dituen, hauek ebaluatu ostean eraginkor eta erabilgarri agertu direnak politika publikoetan txertatzeko. Hasiera batetan, lau proiektu nagusitan sakondu nahi da, horietako bi enpresen arloan gauzatuko direlarik: langileen partaidetza, batetik, eta genero berdintasuna eta kontziliazioa sustatzea, bestetik.

Bigarren ardatza **Gipuzkoa Taldean** litzateke, gizarte antola-

tuarekin elkarlanean. Lurralde gisara Gipuzkoa eta gipuzkoarrok non gauden zehaztu, norabidea adostu eta nola egin aurrerapauso hori gauzatu eta aplikatzen hasteko. Gizarteko hainbat arlotako hirurogei ordezkari osatzen dute martxan dagoen gogoeta eta gobernantza organoa.

Diputatu nagusiak gogoratu duenez, Gipuzkoak lurralde aurreratu, jasangarri eta integraztailea izaterainoko bidea egin du azken bi hamarkadatan, baina krisi ekonomikoak sistemaren indargune eta ahuleziak agerian utzi ditu: “Geldialditik nola irteten garen giltzarri izango da etorkizuneko gure eredu sozial eta ekonomiko zehazteko orduan”. Aldundiaren asmoa Kudeaketa Plan Estrategikoa eguneratzea da, jasotako ekarpenekin eta identifikatutako aurrerakuntzekin.

ESKUALDEKO ORDEZKARIAK

Ekonomiari buruzko hitzorduan Urnietako eta Andoaingo

Udale ordezkari eta teknikariak izan ziren, besteak beste, **Mikel Pagola** Urnietako alkatea eta **Jon Zulueta** Andoaingo Udaleko sustapen ekonomiko, enplegu eta gazteria alorreko zinegotzia.

HIRU ZEHARKAKO ARDATZ

Egitasmoa osatzeko hiru ardatz garatzen ari dira:

Nazioartekotze sarea: “Proiektua mundura ireki, kontrastea egin eta kanpoko esperientzia aberasgarriekin elikatzea bilatzen du. Hau da, atzerrira irten, proiektu interesgarri eta arrakastatsua aurkitu eta, lurraldearen errealitatera egokitu ostean, inportatu”.

Ikerluna: “Lurraldeko ekosistema akademikoaren aktibazioa du xede, programa ezberdinei babesa eta sostengua emateko. Lau unibertsitateak hartzen ari dira parte”.

Gizarteratze prozesua: “Lurraldearen erronkak eta proiektuaren ondorioak gizartean hedatu, eztabaidatu eta partekatzea helburua duena”.

Ostalaritzako oinarrizko ziurtagiria eskuratzeko ikastaroa

Prestakuntza ikastaroa langabezia daudentzat

CEBANCek lanerako prestakuntza ikastaroa abiaraziko du Buruntzaldea-Beterri eskualdeko udalekin elkarlanean, zeinaren bitartez hamar pertsonen ostalaritza munduan lankontratua eskuratu dute. Ikastaroko parte-hartzaileek ostatu arloko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria eskuratu dute eta ziurtagiri horrekin ostatu turistiko batzuetan, mantentze-lanetan, garbiketa

eta logelen prestaketan, garbiketean, lisaketa eta arropa konpontzen, bezeroei arreta eskaintzen, gelazain gisa eta antzeko lanpostuetan aritu ahal izango dute.

Kurtsoa teoriko-praktikoa izango da, 300 orduko iraupenekoa eta azaroaren 30etik 2017ko otsailaren 23ra eskainiko da Donostian Cebanc-en egoitzan. Ikastaroa egiteko lehentasuna izango dute gizarte

laguntzak jasotzen dituzten pertsonen, denbora luze langabezia daudenen, 35 urte baina gazteagoek eta oinarrizko prestakuntzako duten pertsonen. Beti ere Andoainen edo Urnietan erroldatuak izan behar dute.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Cebanc: 943 316 900.

Lanbide Lasarte-Oria:

943 023 814 – 023 805.

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

“Generoa transbersalki landu behar da”

Udal ordezkariak aniztasunari buruzko jardunaldiak aurkeztu zituztenean, mahaikide izan zituzten Josune Mayor Sustapen saileko Udal teknikari arduraduna eta Eli de Arriba berdintasun teknika-

ria. Aurreko astean Mayorren adierazpenak jaso eta gero, Aiurrik berdintasun alorrean egiten denari buruzko informazio gehiagoren bila jo du Eli de Arriba Udal teknikariarengana.

Aniztasunari buruzko egitarau oparua osatu du Udalak. Zeregin handia dagoela ikusten duzu zuk ere?

Eli de Arriba. Aurkeztutako egitaraua abiapuntua da, lehen esperientzia elkarlanean. Generoa transbersalki landu behar da alor guztietan, baina nire ustean kultura eta hizkuntza mailatan bereziki.

Tratu txarren inguruan kontzientzia hartzeko egunak dira...

E.A. Azaroaren 25a oraindik ere aldarrikapenerako eguna da, zoritxarrez. Egu-tegitik desagertzea nahiko genuke, baina oraingoz ez da horrela izango.

Eta era berean, errealitate gordin horren aurrean arduratuta gaude. Administrazioak ardura bat du gizartearen aurrean, erasoak saihesteko baliabideak eskainiz. Besteak beste, heziketa guneei edota herritarrei.

Han eta hemen gertatzen ari dira emakumeenganako erasoak. Urnietan ba al dago kasu horietarako protokolorik?

E.A. Lehenengo eta behin egoera horretan dauden pertsonak bere egoeraren kontzientzia hartu behar dute, eta laguntza eskatu. Urnietan protokoloa lantzen ari gara orain, eragile bakoitzak berea duelako. Osasun etxeak protokolo bat du, Ertzaintzak bestea, Udaltzaingoa berea eta Gizarte Zerbitzuetan gurea.



Eli de Arriba Berdintasun teknikaria.

Jar gaitzen biktima den pertsona baten azalean, lau eragileei bere sufrikarioaren berri eman behar al die? Hori saihesteko lanean gabilta, bakoitza bere eginkizunetatik abiatuta. Formazioa jasoko dugu eta sarean lan egiten hasiko gara. Mahai bat osatu dugu eta helburua protokolo bakarra erabiltzea da.

Tratu txarrak hamaika aurpegi ditu. "El nunca me pegó" dokumentala eskainiko duzue, tratu txarren ingurukoa. Zertaz doan azalduko al zeniguke?

E.A. Indarkeria begi morearekin edo

Ekitaldiak

Urnietan

■ Azaroak 25, ostirala

18:30. San Juan plaza.

Genero indarkeriaren aurkako elkarretaratzea.

19:00. Sarobe.

La Patota filmaren emanaldia.

■ Azaroak 30, asteazkena

18:30. Lekaio.

"El nunca me pegó" dokumentala eta solasaldia.

kolpatutako begiarekin lotzen dugu. Eta hori Urnietan eta Gipuzkoan oso kasu gutxitan gertatzen da. Joan gaitzen haratago, demagun, biolentzia psikologikora. Dokumental horretan biolentzia mota hori jasan zuten hiru emakumeren kasuak azaltzen dira. Egoera horren kontzientzia hartu eta arazo hori gainditzea lortu dute.

Solasaldira, gainera, Irantzu Varela ikus-entzunezkoaren egileetakoa etorriko da...

E.A. Kazetaria, feminista da. La Tuerka estatu mailako internet TV katean saio berezia dauka, zeinean azalpenak 4-5 minutuko bideoen bidez oso modu argigarrian eskaintzen dituen. Dokumen-

talaren egilea da, eta lan horregatik sariak jaso izan ditu.

Azaroaren 25az gaindi, Berdintasun sailaren lan ildo nagusiak azalduko al zeniguke?

E.A. 2013-2016 urteetan lehen berdintasun plana landu zen. Bigarren plana martxan jartzen ari gara, Udal lansail guztiak bertan dauden mahai teknikoaren gidaritzapean. Horrez gain, lehen aipatutako protokoloa lantzea lehentasunezkoa da.

Era berean, jarduera ezberdinekin jarraituko dugu. Datorren hilabetean, esaterako, ahalduntzeari buruzko Pepa Bojoren tailerra izango da. Urte batzuetan aritu da Urnietan eta dagoeneko 60 emakumek parte hartu du tailer horretan.

Berdintasunaren eta rolen aldaketaren bidean baikor izateko arrazoiak zein adibide errealetan ikus daitezke?

E.A. Urnietan Marimore emakumeen elkartea hasi berria da, eta hori oso pozgarria da. Irantzu Varela lana edota Pikara aldizkari feminista nabarmenduko nituzke. Nazioartean, esaterako, Turkian emakumeek lege bat gerarazi dute eta Argentinan emakumeak kalera irten dira euren eskubideen defentsan. Zerbait mugitzen ari den seinaleak dira.

Ekonomia Suspertzeko Plana

Gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

200M€
2015 > 2019

ORAIN EKONOMIA

gipuzkoa.eus/ekonomia

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

“Lu eta Le” antzezlanaren aurre estreinaldia Saroben



Urnietako Saroben egin zuten aurre estreinaldia, eta laster Donostian.

Azaroaren 16an egin zuten Saroben “Lu eta Le” antzezlanaren aurre estreinaldia. Donostia 2016 Kultur Hiriburutzatik **Bernardo Atxagari** enkargatu zioten lan hau, **Xabier Letek** idatzitako “*Gabon Txirrita*” antzezlanetik abiatuta idazteko. Baina, Atxaga **Lurdes Iriondo** eta **Xabier Lete** ren gan zentratu da (“Lu eta Le”), eta beraien bizipenentan oinarritutako da antzezlan idatzitako du, Txirrita alde batera utzita.

AURRE ESTREINALDIA

Sarobeko aretora jende ugari hurbildu bazen ere, ez zen erabat bete, Garbi Losadak zuzendutako Ados Teatroa taldeko Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Klara Mendizabalen interpretazioa ikusteko. Musika, Juan Carlos Perezena da. Eszenografia hotz bezain soil batean, eta irudien laguntzarekin, Lurdes eta Xabierren bizi-

tzaren hainbat pasadizo jasotzen dira, Baita ere, oso presente daude garaiko Euskal Herriko hainbat gertakizun, besteak beste, ETaren atentatuak, Guardia Zibilen kontrolatan hildakoak, Imanol Larzabal abeslariak jasotako mehatxuak, edota kantaldiak eskaintzen zituzten frontoietan irakurri zitezkeen pintadak.

Heriotzarekin flirtea ia etengabekoa bada ere, umoreak eta samurtasunak ere badute bere lekutxoak ikuskituz.

ESTREINALDIA DONOSTIAN ABENDUAREN 4AN

Abenduaren 4an izango da ikusgai Donostiako Victoria Eugenia aretoan.

Eta Xabi Paya Donostia 2016ko kultura arduradunaren hitzetan, jada konfirmatu dituzte, Iruñeko, Gasteizko eta Bilboko emanaldiak ere.

Naroa Agirre kirolaria ikasle gazteen artean



Naroa Agirre kirolari ezagunak Presentacion de Maria ikastetxeko ikasleekin artean igaro zuen goiza, aurreko ostiralean. Haur Hezkuntzako ikasleekin izan zen hasieran, eta haiek pertikarekin lotuta egindako marrazki bilduma

jaso zuen. Ondoren, Lehen Hezkuntzako ikasleekin solasaldi atseginean parte hartu zuen.

Gaztetxoek hamaika galdera egin zikioten ibilbideaz, etorkizunaz, une on eta txarren inguruan,...

Abenduaren 1etik aurrera martxan izango da terapia zerbitzua

Errehabilitaziorako gune berria izango du Pausokak

Urnietako Udalak eta Pausoka elkarteak hamar urterako lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, zeinaren bitartez Idiazabal kaleko 13. zenbakiko etxabearen terapia eskaintzen hasiko diren. Urnietako, Andoingo eta Buruntzaldeko haurrei bezalaxe Gipuzkoa osoko haurrei ere zerbitzua eskainiko diete. Izan ere, Pausokako kideen artean aurki daitezke Donostialdeko, Urolako edota Tolosaldeko familia ugari. Baita Hendaian bizi den beste familia bat ere. Terapia ezberdinak eskainiko dituzte sei gela ezberdinetan: Fisioterapia, terapia okupazionala, logopedia, psikologia eta familientzako terapia.

Egoitzan bertan dendatxoak ere ipiniko dute, kamisetak eta bestelako produktuen salmenta elkartearen finantziatorako diru iturri nagusienetakoak baita.

Mikel Pagola alkateak Pausoka elkartearen lana aintzat hartu zuen: “Udala erabat kontzientziatuta dago izaera horretako egoerekin eta konpon-



Urnietakoa Hernaniko Floridan dagoen instalakuntzen oso antzekoa izango da.

Terapia ezberdinak eskainiko dituzte sei gela ezberdinetan: Fisioterapia, terapia okupazionala, logopedia, psikologia eta familientzako terapia

biderik onenak eskaintzeko ahal duen guztia egiten du, eta oraingoan ere hala izan da”.

Irekiera

Urnietako

Azaroak 26, larunbata

Idiazabal kalea, 13. zenbakia.

10:30 Aureskua, banda moztea.

11:00 Egape eta Eureka taldeen arteko dantza fusioa.

11:30-13:30 Haur tailerrak.

12:00 Mickey eta Minniekin argazkiak. Felipe Ugarte txalapartariaren saioa.

“ELKARTASUNA HANDIA JASOTZEN ARI GARA”

Maria Lesaca Pausoka elkartearen *alma mater*-ak Urnietako Udalaren eta alderdi politiko guztien aldeko jarrera eskertu zuen. Agerraldian, ordea, behin baino gehiagotan hizpide izan zituen elkarreko bolondresak: “Pausokako kideak behar bereziak dituzten gurasoak gara, eguneko hogeita lau orduak zaintza eskainiz gabiltzanak. Pausokakook bolondresen lanik gabe ez genuke ibilbidearen erdia ere egingo. Elkartasun handia jasotzen dugu Hernani eta Urnietako herritarren aldetik. Beharrea gauden bakoitzean jende askok erantzuten du”. Izen abizenekin bi pertsona nabarmendu nahi izan zituen, egoitzaren egokitzapen lanean ezinbesteko izan baitira **Antton Lekuona** bolondresa eta **Jorge Segurado** zinegotzia.

Esker ona adierazi zien Urnietako Udalarri eta korporazioa osatzen duten hiru alderdiei ere, “erantzun bikaina eman digute, eta eskerrak eman beha-



Maria Lesaca.

“Gure haurren errealitatea gizarteratuz, herritarren inplikazioa askoz handiagoa izaten ari da”

rrean gaude. Gure errealitatearen berri badute, lehenik ere inklusiora begirako egitasmoak egin ditugulako. Esaterako, herriko ikastetxeetan. Lan hori egi-

tearen poderioz, eta gure haurren errealitatea gizarteratuz, herritarren inplikazioa askoz handiagoa izaten ari da”.

Azken lau hilabeteetako lanak amaitzeaz direla, larunbat honetan egoitzaren irekiera ekitaldia egingo dute. Egoitzara bisitaldia egin eta gero, elkartearen kanpoaldean dantza eta musika saioa iragarri dute. Eguraldi txarrak okerrera egingez gero, ordea, ekitaldiak Egape ikastolako jolastoki estalian egingo dituzte.

Lesacak irekiera ekitaldia ospakizun bilakatzea defendatu zuen: “Irekiera polita egin nahi genuen, haurren inklusioan sakonduz. Horrelakoetan egiten ditugun jardueretan nire pentsamendua gure haurrak protagonista izatean dago”.

Goizetik hasi eta eguerdira arte, egoitza berria ezagutu eta haur jardueraz gozatzeko aukera izango da.

Ospakizunak amaituta, datorren abenduaren 1ean hasita terapia ezberdinak eskaintzen hasiko dira egoitza berrian.

Irteera Laguardiara datorren abenduaren 8an

Denda Berriren irteera

Arabako lautadara irteera antolatu du Denda Berrik, datorren abenduaren 8rako.

Izena emateko azken eguna azaroaren 30a izango da. Orduetgia: 08:30 Irteera.

11:00 Bisita Gil Berzal bodegara
12:30 Bisita Santa Maria elizara.
14:30 Bazkaria La Huerta Viejan.

ELKARRIZKETA

Merezitako omenaldia

Felicidad Diez Martinez "Feli" k jasoko du aurtengo Joxe Mari Olazabal saria, Caritas elkarteak urtero antolatu ohi duena. Andoainen hurkoaren alde diharduen elkarte edo pertsona jakin bati esker

ona adierazteko sortu zen saria, orain lau urte. Datorren abenduaren 14an Basteron egingo dute ekitaldia, iluntzeko 19:00etatik aurrera.

Felicidad Diezek Andoaingo zahar egoitzan bizi diren adineko pertsonekin erakusten duen eskuzabaltasuna eta goxotasuna nabarmendu nahi izan du epaimahaiak, aurkeztu diren proposamen guztiak baloratu eta gero. Aitorrena ez zuela inondik ere espero adierazi du Felik. "A ze ezustekoa eman didaten! Ez dakit merezi dudan ala ez, baina baiezkoan badaude Caritaskoak, hobe horrela, burua ondo daukadan bitartean, alegia". Feli agian ez da oso ezaguna izango herrian, baina urteak daramatza musutruk lanean, isilean eta ordainean ezer eskatu gabe. Hain zuzen, urte mordoa darama bertako zaharrentzat entretenimenduzko ekintzak antolatzen. Gimnasia hasierako urteetan, eta bingoa beti-beti.

Berak kontatu du zerk bultzatuta ekin zion jarduerari: "Senarra (Benedicto Asensio) orain 23 urte hil zitzaidan, eta nahiko galduta geratu nintzen, beti elkarrekin ibiltzen baikin. Psikologo batek aholkatu zidan eskuartean arduraren bat hartzeko boluntario gisa; bestela gaizki buka nezakeela burutik. Erresidentzian boluntarioak eskatzen zituztela eta, hantxe aurkeztu nuen nire burua. Oso harrera ona egin zidaten segituan, bertako langile zein zaharrek".

Denetik egin du orduraz geroztik. "Aurreneko urte haietan zahar egoitzan ez zeuden orain dauden langile espezializatuak, eta hiru boluntario sartu ginen. Kontzientzia eragozle zen mutil batek pintura ematen zien aitona-amonari, neska batek antzerkia eta, neuk gimnasia. Asteazkenean hiru egunetan aritzen ginen gimnasiarekin, eta Luzia, Pakita eta Valentinek laguntzen zidaten lan horretan".

Bingoan antolatzeari ez dio uzten. "as-telehenetan eta ostiraletan antolatzen dut; soilik abuztuan egiten du huts bin-



Felicidad Diez Martinez "Feli" San Joan Bataiatzailea egoitzan.

23 urtetan makina bat emakumezko eta gizonezko egin ditu adiskide zahar egoitzan

goak. Bertako langileak diren Urko, Alaia edo Zuriñeren laguntza behar izaten dut, izan ere, egoitzako zenbaitzuk ez dira gauza bakarrik moldatzeko. Oso ekimen xumea da berez, baina ondo betetzen du bere funtzioa egun osoa zahar egoitzan barruan igaro behar dutenen zerbitzura".

AITONA-AMONAK DITUEN BIRRAMONA

Zorionekoa da Feli: Gari eta Itziar bilobak eta Unai, Oihane eta Naroa birbilobak edukitzeaz gain, aitona-amonak dituela esatea gustatzen zaio: "Nire

aitona-amonak dira; halatsu hartzen ditut. Nik izugarri maite ditut eta baita beraiek ni ere. Gozatu egiten dute bingoarekin, eta biziki eskertzen didate asetero antolatzea. Poza agertzen dute ni ikustean, eta elkarri musu bana emanaz hasten dugu saioa beti".

23 urte horietan, makina bat emakumezko eta gizonezko egin ditu adiskide zahar egoitzan; aldi baterako pozak, ordea, tristura dakar azkenerako: "horietako asko banan bana bistatik desagertzen joan zaizkit, edo-eta, bingoan jokatzeke ere ez direla gauza geratu dira. Bizi-lega da, eta hala hartu behar".

Buruak eta indarrak erantzuten dioten bitartean, bingoaren ardurari eutsi nahi dio. "Hara nola joan konponduz gero, zergatik ez? Etxeberrieta auzoan bizi naiz, eta ahal dudana bezala joaten

naiz erresidentziaraino. Andoaingo mutur batetik besteraino oinez poliki-poliki ibiltzea dut gogoko, baina bi oinak nahiko gaizki dauzkat, eta tarteka, semeak autoan eramaten nau edo autobusean joaten naiz".

Ez dauka pentsatuta zer esango duen abenduaren 14an Basteron antolatuta dagoen ekitaldian, baina nola edo hala eskerrak eman nahi dizkie zahar egoitzako langileei, "urteetan ederki aguantatu nautilako".

SORIAKO ALABA

Feli 1931eko martxoaren 23an jaio zen, Omeñaca herrian (Soria). Bere bizitza nobela batean kontatzeko modukoa dela adierazi du. "Bost senide izan ginen etxean. Nekazariak ginen, eta aitak lur sailak jorratzen zituen, garagarra, oloa eta gariarekin. Ama bihotzetik gaixo bizi izan zen beti, eta haurdun zegoela hil zen 41 urte zituela. Ni orduan senideetan zaharrena nintzen, 17 urterekin, eta amaren papera bete behar izan nuen familian, anai-arreba guztien arduratuta. Egin kontu, txikiak urtebete baino ez zeukan".

Felik, gerora senarra izango zuen Benedicto Asensio ezagutu zuen, Omeñacatik gertu dagoen herri bateko mutila. Aitak anai-arrebarik gazteenak barnetegietara eraman zituen, ardurak arindu egin zitzaizkion Feliri, eta ezkontzeko beta eduki zuen orduan. Laster, bikoteak Gipuzkoara emigratzea erabaki zuen, Sorian lanik bilatzen ez-eta. Amasa-Villabonan jarri ziren bizitzen lehenbizi, senarrak bertako Arriaran lantegian lanpostua topatu baitzuen. Baina asko gabe, Andoainera etorri ziren, Etxeberrieta auzora. Seme bat eduki zuten bertan, Andres.

Abenduaren 14an herrikideen aitor-tza jasoko du Basteron egingo duten omenaldi ekitaldian.



Noiz:
Abenduaren 2an,
ostiralarekin.

Non:
Andoaingo
BASTERO
Kulturgunean.

Ordua: 21:30

Sarrera 12€

Sarrerak salgai.
Andoain: Ernaitza,
Delgado eta Stop.
Urnieta: Bikain (plaza).



Dozenaka lagunen parte hartzea giza-katean

Aurreko larunbat arratsaldean **Asier Oartzabal** Andoaingo preso politikoaren aldeko giza-katean dozenaka lagunek parte hartu zuten. Ekitaldia Goikoplazan hasi eta Zumea plazan amaitu zen. Taula gaitetik Lontxo Oartzabal presoaren osabak, honako adierazpena egin zuen, bertan ziren pertsona ugari hunkituz: "Gazte zelarik hartu zuen erabaki batengatik ordaintan omen dago espetxean Asier, esaten digute Frantziako justizia arduradunek. Bergizarteratzeko beharra omen du eta horregatik egon behar omen du espetxean, askatasunik gabe. Legeek diotenez, espetxeko bizimoduak espeteratua bergizarteratzeko gaitu behar luke. Ikerketa guztien emaitzek, aldiz, kontrakoa frogatzen digute. Zakartu, zekendu eta berekoitu baino ez du egiten espetxe barruko baldintza eta harremanek. Espetxeak ez du, beraz, legeak dioena betetzen".

Gizatasunaz ere hitz egin zuen, espetxe politikan aurkitzen ez duen gizatasunaz: "Gaur egun indarrean dagoen espetxe legedia ez dago gizatasun jator baten ikuspegi eta irizpideetan oinarrituta. Oso bestelakoa da: gorrotoa eta mendekua dira egoera horren gidariak. Asierrek orain urte asko hartutako erabakiekin ados egon edo ez egon, horrek ez du esanahi ordea espeteratuek gorrotoaren eta mendekua pozoietan murgilduta bizi behar dutenik, ez eta espetxealdia zentzurik luzatu daitekeenik. Gandhik adierazi zigunez, gorrotoa eta mendekua ez di-



Lontxo Oartzabal.

ra baliabide egokiak gizarte-ko gatazkak konpontzeko orduan. Gehiago oraindik: hondamendira bideratuko lukete gizarteak".

Bere ustean, Asierrek bergizarteratzeko baldintzak betetzen dituela erakutsi du: "Espetxeko baldintza eskasetan bizi izanik ere, maitasunean oinarritutako familia bat erakitzeke erabakia hartu du Ainhoarekin batera. Eta horixe dago, maitasun erabaki horren fruitu, Intza txiki maitagarria. Espetxeetako giro zekenean horrelako erabakia hartzeko gai dena, gizartean ere erantzukizunez bizitzeko gaiturik dagoela erakusten ari da. Horregatik Asierri esan nahi diogu: etxean nahi zaitugu, familian behar zaitugu, Ainhoarekin eta Intzarekin batera herrian bizitzen, lagunartean indartzen. Asier, Ainhoa eta Intza maite ditugulako, nahi dugu, behar dugu Asier gure artean".

Txalo artean agurtu zuten ikusleek Lontxo Oartzabalen adierazpena.



Dozenaka lagunek parte hartu zuten Oartzabalen aldeko giza-katean.

Mus txapelketa Irunberrin datorren abenduaren 2an

Euskal Herriko mus txapelketaren edizio berria martxan jarriko dute laster. Andoainera datorren abendua-

ren 2ra iritsiko da. Irunberrin elkartean jokatu da, ohi bezala, 22:30ean hasita. Sari potoloak banatu dituzte.

Azaroaren 25a, genero indarkeriaren aurkako eguna

Eraso matxisten aurkako sentsibilizazio kanpaina

Esti Mujika Hezkuntza eta Kultura zinegotziak ekimenaren aurkezpen ekitaldia egin zuen, hainbat Udal ordezkari eta teknikari alboan zituela: "Beste urte batez, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela esateko irtengo gara kalera. Egun hori aldarrikapen egun bat da guretzat: Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna, hain zuzen ere. Izan ere, emakumearen kontrako indarkeria etxeko gai pribatu bat izatetik, jendartearen eta politikaren arlo-za zabaldu da azken hamarkadan".

Lanketa egiten jarraitzeko beharra defendatu zuen, eta Udal zerbitzu ezberdinak ho-



Udal ordezkariak eta teknikariak, aurtengo kanpainaren aurkezpenean.

rretan dabilta azken urteotan: "Jendarteko eremu guztietan lanketa berezia egitea ezinbestekoa dugu. Ildo horretan prestatu dugu aurtengo egitaraua. Gizarte Zerbitzuen saila, Gazte Lokala, Kale Hezitzaileak eta Udal Ludoteka aritu gara horren prestaketan".

Plaza morea

Zumea plaza

Azaroak 24, osteguna.

"Tratu on" jaialdia:

17:00 Txapa tailerra.

17:00 Autodefentsa.

18:30 Zumba ez sexista.

19:00 Flash mob-a.

19:30 Batukada feminista.

Abenduko lehen asteburuan ekitaldi ezberdinak Andoainen

Ekitaldi sorta Euskararen eguna ospatzeko

Ikastetxeak, elkarteak eta Udal lansail ezberdinak Euskararen egunaren harira ekitaldi ezberdinak antolatzen dabilta abenduko lehen astebururako. Honakoak:

ABENDUAK 1, OSTEGUNA

19:00 Bertso-pintxo poteoa, Basterotik. Antolatzailea: La Salle Berrozpe ikastetxea.

18:00 II. Andoain Laburrean: Film laburren emanaldia

eta sarien banaketa ekitaldia Basteron. Antolatzaileak: Andoaingo Udala eta ESCIVI.

ABENDUAK 2, OSTIRALA

18:00 Kontzertu didaktikoa Gazte Lokalean.

21:30 Gabon Txirrita antzezla. 12 euro. Antolatzaileak: 111 Akademia eta Andoaingo Udala. Sarrerak salgai daude Andoain eta Urnietan.

ABENDUAK 3, LARUNBATA

11:15 Kalejira Juanita Alkain plazatik Zumea plazara. Antolatzailea: Aita Larramendi Ikastola.

20:30 Bertso afaria Peña Santa Krutz elkartean: Amets Arzallus eta Sebastian Lizaso. 30 euro.

Asteburuan Basteron eskainiko dituzten film emanaldiak, gainera, euskara hutsean izango dira: Helduentzat "Igelak" eta "Albert", haurrentzat.

BIDAIDE-GURASOLAGUN EKIMENA ABIATU DA

Euskararen ahozko erabilera sustatzeko Bidaide izeneko tailer sortari hasiera eman zioten aurreko ostiralean. Kotoi elkartean sukaldaritzari buruzko saioa egin zuten, haurrek eta gurasok elkarrekin arituz.

Ekimenaren helburuak familian euskararen erabilera sustatzea, ondo pasatzea eta euskal komunitatea saretea dira. Mintzalagunaren baitan kokatzen da.





KIROL ALBISTEAK

Sailkapenaren lehen postuan



Denboraldi polita egiten ari dira Urnietako jokalariek, eta dagoeneko sailkapenaren lehen postuan daude. Asteburu honetan lidergotza sendotzeko aukera bikaina dute, Touring aurka.

Emakumezkoen Erregionala

FUTBOLA. 9. jardunaldia

Urnietako 8-0 Allerru

10. jardunaldia, asteburuan:

Urnietako-Touring

Larunbata, 26. 15:30.

Sailkapena:

1. Urnietako	22
2. Touring	19
3. Ordizia	19
4. Intxaurdi	16

Aldundiarekin hitzarmena

Andoaingo Udal ordezkariak Denis Itxaso kirol diputatuaren bisitaldia jaso zuten astelehenean goizean, Allurralde kiroldegian egin berri dituzten konponketen inguruan lankidetzaren hitzarmena sinatzeko. Igerilekuaren sakonera murriztu, aldagela berriak eraikitzeko edota harrera bulegoak eraberritzeko 220.000 euroko inbertsioa egin da, horietatik erdia Foru Aldundiaren eskutik etorri dena. Udalak Gipuzkoako erakunde nagusiaren laguntza eskertu du, ohar bidez.



Ana Carrere alkatea eta Denis Itxaso Foru Diputatua hitzarmenaren sinaduran.

Gipuzkoako finalerako bidean

Julen Loitegi eta jubenil mailako Imanol Odriozola senior mailako Gipuzkoako final aurrekoak jokatzeko sailkatu dira, Intxurre taldea 22-7 garaitu eta gero. Finala eskuratzeko bi partida besterik ez zaizkie geratzen. Hori lortuz gero, mailako igoera lortuko lukete.

ASTE BURUKO EMAITZA GEHIAGO

Eskuz banaka, 4 1/2:

Hernani 16-22 Urnietako

Salaberria-Aldunberri.

Gomazko paleta, senior maila:

Urnietako 13-25 Piña Kurdin

Jon Iturbe-Unai Arozena.

UKEn historian garaipen gehien lortu duen bikotea da.

Urnietako 25-22 Zarautz

Jon Iruretagoien-Xabier Perez

Gipuzkoako txapelketa garaipenarekin amaitu dute.

Pala motza, 3. maila

Urnietako 40-26 Txost

Mikel Jauregi-Xabier Garagorri

Final aurrekoak lortuta, eskura dute finala jokatzeko.

BTT irteera igande honetan

Zanpatuz mendi elkarteak igande honetarako BTT irteera antolatu du Leitzarano

deko kanaletara. Hiru orduko iraupenekoa, 09:30ean irtengo dira San Juan plazatik.

Senior mailako eskubaloia



Urnietako KEko kideak pozik daude senior mailako bi taldeak garaile izan direlako.

URNIETA 33-14 GALDAKAORI

Senior neskek. Denboraldiko bigarren garaipena, hasieratik amaieraraino nagusitasuna erakutsiz. 5-0eko partzialarekin hasi zen eta antzeko jarraitu zuten astedendira arte (14-8). Bigarren zatian etxeokak izan ziren jaun eta jabe. Merezitako garaipena.

URNIETA 28-23 EIBAR

Senior mutilak. Bi puntuak etxean geratu ziren, defentsan sendo eta seriotasunez arituz. Aurreko asteburuko lezioa ikasita, partidaren bila zelairatu ziren. Jarrera horri esker, gol errenta handitu eta bost goleko abantaila hori amaieraraino mantendu zuten.

Laburbilduz, garaipen garantzitsua. Taldea hazten doa pixkanaka.

SENIOR MUTILAK:

Urnietako 28-23 Eibar

Elgoibar 26-30 Leizarano

8. jardunaldia, asteburuan:

Ormaiztegi-Urnietako. Lar, 11:30.

Leizarano-Ordizia. Ig, 11:45.

SENIOR NESKAK:

Leizarano 20-24 Berango

Urnietako 33-14 Galdakao

8. jardunaldia, asteburuan:

Eibar-Leizarano.

Munttarpe-Urnietako.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Ganbara SenM 73-65 Goierri

Erroibide 34-16 Ganbara JubM

Soraluze 69-28 Ganbara KadM

Asteburuko partidak:

Ganbara KadM-Mundarra

Larunbata. 09:00.

Ganbara JubM-Mundarra

Larunbata. 10:30.

Erregional mailako futbola

10. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Euskalduna 2-3 Mariño

Orioko 4-0 Urnietako

11. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Behobia-Euskalduna. Lar, 19:30.

Deustu-Urnietako. Lar, 18:00.

SAILKAPENA. 10. jardunaldia:

1. Añorga 24

2. Euskalduna 20

5. Trintxerpe 18

7. Orioko 15

11. Urnietako 11



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larumendi
Kultur Buzina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Argia

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etzez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 24TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain

- **"Sully":**
Azaroak 26: 19:30, 22:00.
Azaroak 27: 19:30.
Azaroak 28: 19:30, 22:00.
- **"Ozzy":**
Azaroak 26 eta 27: 17:00.

Urnietan, Sarobe

- **"El viaje de Arlo":**
Azaroak 27: 16:00, 18:30.
- **"The pillow book":**
Abenduak 2: 21:30.
- **"Carlitos eta Snoopy":**
Abenduak 4: 16:00, 18:30.

Ekitaldia

Andoain, Zumea plaza

- **"Tratu on" jaialdia:**
17:00 Txapa tailerra.
18:30 Zumba ez sexista.
19:00 Flash mob-a.
19:30 Batukada feminista.
Azaroak 24, osteguna.

Antzerkia

Urnietan

- **"Ezer ez da dirudiena" haur antzerkia,** Patata tropikalaren eskutik.
17:30. Sarobe. 3 euro.
Abenduak 11, igandea.

Urnietan

- **"Txirri, Mirri eta Txiribiton" haur antzerkia,** estreinaldia.
17:00. Bastero. 4 euro.
Abenduak 18, igandea.

Santa Zezilia

Andoain, Bastero

- **"Begirada bi", Iñaki Salvadorekin.** 20:00. Doan.
Azaroak 25, ostirala.
- **Mirari Irurzun eta Susana Cencilloren** ikuskizuna.
20:00. 8 euro.
Azaroak 26, larunbata.
- Andoaingo **Udal musika eskolako banda** eta abesbatzak.
12:30.
Azaroak 27, igandea.

Urteurrena

Andoain, Gaztetxea

- Egun osoko festa, Gazte-txearen eskutik: Babarrun jatea, Orkresta elektrotxaranga eta gauean Estricalla eta Inoreneroni musika taldeak zuzenean.
Azaroak 26, larunbata.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: **Gorospe.**
Urnietan: **Etxebeste,** Hernani.
- Gaeuz: **Urrutia,** Hernani.
Azaroak 26, 27.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- **"Esku azpi begi" Estanis Comella, Maite Mugerza eta Damaris Pan artisten eskutik,** urte amaiera arte.

Zikloak

Urnietan

- **Azaroak 24, osteguna**
17:30. Ludoteka.
Ipuin kontaketa: Isabel Agirresarobek munduko ipuinen berri mango du.
- **Azaroak 25, ostirala**
18:30. San Juan plaza.
Elkarretaratzea: Genero indarkeriaren aurkako elkarretaratzea.
19:00. Sarobe.
"La Patota" film emanaldia.
- **Azaroak 28, astelehena**
18:30. Lekaio.
"Auzokoak", jatorri ezberdinetako herritarrek euskara egindako gerturatzea. Ikus-entzunezkoa eta solasaldia.
- **Azaroak 30, asteazkena**
18:30. Lekaio.
"El nunca me pegó" tratu txarren biktimak. Ikus-entzunezkoa eta solasaldia.

Andoain

- **Bizitzaren Herena** ekimena, Axier Oartzabalaren alde. Ikus-entzunezkoa: Senide eta lagun lekukotzak, presoaren urtebetetze egunean.
19:00 Bastero.
Azaroak 29, asteartea.

Ate irekiera

Andoain

- **Galardi** haurreskolan.
Azaroak 28, astelehena.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Azaroaren 26an 84 urte beteko dituzu **Arturo**. Ongi pasa! Muxu handiak, Paz, Jesus, Ibai, Aitor eta Piliren Muxuak.

URNIETA


ZORIONAK



Igorrek 7 urte zoragarri beteko ditu azaroaren 25ean. Primeran ospatuko dugu denok elkarrekin.

URNIETA

ZORIONAK



Garazi-Aner, Aner-Garazi, 16+12, 12+16, berdin berdin 28 haize-zirimola goxo eta leun!

ANDOAIN

LAN ESKAINTZA: Pertsona euskaldun bat behar da 3 urteko ume bat zaintzeko Urnietan. Astelehenetik asteazkenara: 14:00-16:30. Ostegunetik ostiralera: 12:30-16:30. Interesatuak: 650 415 591 / 633 697 878.

Elikadura kirol mailan

Aitor Ugalde eta Imanol Iraola adituek gazte kirolarien elikaduraren inguruan aholkuak eskainiko dituzte, adibide praktikoa erabiliz. Hitzordua Andoaingo txirindulari eskolako antolatua da.

Ugalde farmazian eta giza-nutrizio eta dietetikaren graduatua da. Ira-

ola, berriz, gastronomia eta sukaldaritzan graduatua da.

Bi orduko hitzaldia izango da, denboraldian zehar elikatzeko zenbait aholku eskaini eta ereduak erakusteko.

Azaroak 26, larunbata. 17:30. Urigain.

Alternaktiba azoka

Azaroaren 26an, larunbat honetan, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen azoka antolatuko dute Hernanin goizeko 11:00etatik 14:00etara. Plaza Berrian egingo da eguraldi ona eginez gero, bestela, Atsegindegian.

Ekonomia beste era batera ulertzen duten ekintzaile, kooperatiba eta enpresak egongo dira: Ahmer, Alai-Ondo diseinatzaileak, Arremanitz, Banaiz Bagara, Batura, Bizi-on, Euskal Herria Share, FIARE, GEZKI (EHU), Goiener, Kalaka komunikazio parekidea, Koop57, Labore kontsumo kooperatiba, Lanki (MU), Latxe baratza-elkarteak, Mar Mar kulturagunea, Miro-

kutana, Olatukoop, REAS, TaPuntu, Uztarri eta abar.

Datorren urtera begira, eskualde mailako ekintzaile programaren burutuko dela-eta, azokan bertan programaren inguruan informatzeko aukera egongo da.

Horrez gain, proiektu hauek gertuagotik ezagutzeko mikrofono aurrean aurkeztuko dituzte eta gero, bertaratutakoekin beren postuetan azalpen edo zalantza argitzeko tartea izango dute. Pintxoak eta bertako garagardo dastaketa ere egongo da. Ekonomia alternatibak aurkeztuz, elkarren sinergiak bultzatzeko eta ezagutzeko aukera izango da.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: ABENDUAK 1, OSTEGUNA



Lan berriaren aurkezpen emanaldia

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

ARGIAren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)

ABENDUAK 11, IGANDEA

Saio bakarra: 11:30ean

Sarrerak: Aurretik 7 euro. Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Eskuratu zure sarrera: ☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.eus

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

ARGIA